

# **EITB erreformatzeko oinarriak**

**EITBren erreforma integrala jorratzeko  
Eusko Legebiltzarreko lan-taldean  
ELA sindikatuak aurkezturiko proposamena**



Hedabideak, oro har, baina batez ere gure komunikazio talde publikoa, ELArentzat kezka iturri izan ohi da, klase-sindikatu den aldetik. Hedabide publikoen eginkizuna funtsezkoa da sistema demokratikoetan, eta jendarte guztiari eman behar diote hitza, baita babesgabeen dauden sektoreei ere, edota korporazio pribatuek eta gobernuek isilarazitako proiektu alternatiboei. Beraz, klase, genero, etnia, jatorri edo aniztasun funtzionala medio sortutako desberdintasun eta diskriminazioak orekatzen saiatu behar dira.

Hedabide publikoek bertoko kultur- eta ikusentzunezko-industriarentzako akuilu izan behar dute; informazio, formazio eta aisirako bitartekoa dira, eta lankide zein pizgarri izan daitezke jendartetik sortutako hedabideentzat edota tokiko medioentzat, zeintzuk korporazio pribatuek sekula asetuko ez dituzten herritarren eskariak bideratzen dituzten.

## **Zerbitzu publikoa**

Hedabide talde publiko baten eginkizunak anitzak dira: kalitatezko informazio plural, independente eta kontrastatua biztanle orori eskaini; hezi eta zientzia nahiz kultura eskura jarri; ekitate soziala eta kolektibo diskriminatu zein gutxiengoaren eskubideak sustatu, eta pluralismoa nahiz herritar parte hartzea bultzatu.

Herritar interesari zerbitzu emateak esan nahi du informazio erakargarri eta interesgarria hautatzea, baina batez ere jendartea aberastu eta duinago egingo duen informazio eta formazioa; hor ez dauka lekurik arrunckeriak, esperpentuak, morboak, eta are gutxiago minoria, aniztasun edo kolektibo diskriminatuen trufa. Gure egungo testuinguruan hedabide publikoek kontu handiz jokatu behar dute genero diskriminazioa ez errepikatzeko, eta are gutxiago areagotzeko. Generoez ematen duten irudia zaindu behar dute eta ekitatearen aldeko lan aktiboa garatu.

Halaber, hedabide publikoa ezin da pribatuaren subsidiario izan -esaterako, honek merkatu arrazoiak direla eta eman nahi ez dituen saioak emanez-, eta inola ere ezin du bere gain hartu, egin ohi den bezala, korporazio pribatu boteretsuek goizean goizetik definitzen duten agenda informatiboa, ezta kate

pribatuen formatoak eta aisirako edo dibertsiorako edukiak kopiatu ere, haiek baino baliabide gutxiago dituztelarik.

Pluraltasuna izan behar da hedabide publiko baten ikurretako bat. Halere, pluraltasunak ez du esan nahi parlamentuaren isla izan behar duenik. Gure irrati eta telebista publikoko kanalak gainez egin dute tertuliano eta hautetsiekin, baina hauen presentzia atxikipen alderdikoi zorrotzak besterik ez du eragiten.

Hedabide publikoak kontrapuntu izan behar dira, korporazioekiko kontrabotere, hauen interesak lehenago ere sistema demokratikoa eta bere erakundeak, zein sistema mediatikoa zeharo kutsatuta baitituzte. Jendartean hedabide pribatuak badirenez, sektore politiko eta ekonomikorik boteretsuenak badute presentzia espazio publikoan. Beraz, hedabide publiko batek jendarte osoari presentzia eta sarbidea bermatu behar dio. Bereziki zainduz gizarte-mugimenduen, gutxiengoan daudenen, kolektibo diskriminatuen, mugimendu emergenteen, gune haustaileen eta abarren presentzia.

Kontrapuntu izango bada, ezinbetsekoa den independentziaz gainera, beharrezkoa da hedabide publikoak baliabide material eta humano aski izatea, lan baldintza duinekin; berrikuntza teknologikoan aitzindari izan behar du (komunikazio-plataforma multimedia, komunikazio eta parte hartze sozialeko egitura berriei egokitua); edukiak egokiak ote diren neurtu behar du, eta ez sharean izan dezakeen eragina, betiere audientzia hedatzeko ahalegina baztertu gabe.

Bere programazioa originala eta desberdina izan behar da, arlo publikoak enkargatu eta finantzatua, nortasun eta estilo propio eta bereziarekin, berritzeko eta sormenerako gaitasunarekin, non lidergoa hedabideko profesionaleri dagokien.

## **Informazioaren garrantzi berezia**

Hedabideek nolabait kontsentsua irudikatu ohi dute, taxutu egiten baitute “iritzi publikoa” edota “interes orokorrak” izeneko errealitate lauso horiek. Esan gabe doa hauek ia beti interes alderdikoiak mozorrotzen dituztela, botere politiko eta ekonomiko-finantzarioaren zerbitzura daudenak. Komunikazio-sistema publikoak beti izan behar du kontutan iritzi publiko anitz eta desberdinak daudela, baita interes alderdikoi desberdinak ere, eta gairik

beroenetan beti izan ohi dela konfrontazioa, baina baita establishment-aren ahalegina diskurtso ofiziala edo hegemonikoa onartzen ez duten iritzi eta posizioak isilarazteko, estigmatizatzeko edo indargabetzeko. Honen adibide argia dugu botere finkatuarekiko erakunde alternatibo edo kritikoak nola isilarazten, zokoratzen eta baztertzen diren. Horrela gertatzen da behin eta berriz, bai hedabide pribatu baita publikoetan ere, ELArekin, nahiz eta informazio eta dokumentazio andana sortu, edo establishmentarentzat deseroso diren beste hainbat erakunderekin.

Medioek gainera berebiziko indarra dute “zuzenak” diren giro, korrante, estereotipo eta fikzioak sortzeko. Eurek definitzen dute agenda eta gai edo kezka orokorrak, baina oro har agenda hori gobernuen eta botere politiko, korporatibo edo finantzarioen zerbitzura dago. Hedabideek, halaber, zer esan handia dute gobernuen ekintzarako eremua neurritz kanpo handitzeko eta era aktiboan zein pasiboan klase xeheen interesen kalterako diren ekimenen oihartzuna murrizteko, edota aro neoliberallean errealitatea politika publikoak mugatzen ari diren ildo estuara mugatzean, eta horietatik kanpo dauden alternatibak ezkutatzean. Eztabaida politikoa horrela, hain zorroz zedarritzeak, talde ekonomiko, politiko eta kultural hegemonikoen ugalpen ideologikoarentzako marko bilakatzen du. Hil ala bizikoa da hedabide publikoetako arduradunak botere-mekanismo hauen jakitun izatea, kontrol-sistema eta neurriak bermatzea eta medio publikoek herritarren iritzi-eremua zabaltzea.

Izan ere, hedabideek ez baitituzte soilik albisteak ematen; interes hegemonikoen arabera datuak nola prozesatu esaten duten interpretatzeko eskemak ere sortzen dituzte. Hor dago EITB-Focus inkesta eta antzekoak: interes jakinen mesedetan erabili ohi dira, eta ugaltze ideologikoaren mesedetan baliatzen diren tresna nabarmenak dira. Halaber, informatiboak ere manipulatu egiten dira; gobernuaren agenda eta politikaren bozgorailu bihurtzen dira, eta talde jakin batzuk baztertu egiten dira, hauek leporatzen zaielarik ordena haustea; gobernuko iturri, botere ekonomiko-finantzario talde edota hedabide pribatuen esanetara editorializatzen da eta politika espektakulu gisa aurkezten da (gehienean kazetaritzaren oinarria politikarien adierazpenak dira, ez datu eta egitateak).

Euskal irrati-telebista publikoaren eremutik harago badoa ere, gure herriko

errealitatearen isla informatibo propio eta plurala behar bezala eman ahal izateko ELAren iritziz beharrezkoa da Euskal Informazio-Agentzia Publikoa sortzea. Agentzia honek euskaraz eta modu zabal zein independentean jaso beharko lituzke Euskal Herriko gertakari politiko, sozial eta kultural nagusiak, horrela euskal komunikabideen agenda informatiboa elikatuz. Agentzia honek bertoko erreferentzia informatiboa sendotuko luke, gure errealitatearen araberakoa eta beste agentzia informatibo edo komunikazio talde pribatuen ildo editorialekiko autonomia. Zerbitzu publiko informatibo honek, euskal irrati-telebista publikoa ez ezik, hemengo hedabide guztien agenda pluralagoa izatea eragingo luke. Batez ere txikienentzat, batik bat edo soilik euskaraz lan egiten dutenentzat edota baliabide gutxien dutenentzat eta horregatik estatuko agentziek zein komunikazio-talde pribatuek taxututako agenda informatiboarekiko menpekoen direnentzat.

## **Independentzia**

Guk nahi dugun hedabide publikoa herritarren zerbitzura egon behar du. Horretarako gobernu, botere ekonomiko eta alderdiengandik independente izan behar da, eta finantziario nahikoa jaso behar du.

Gure iritziz independentzia da modu bakarra hedabide publikoek egin ahal ditzaten sistema demokratikoan dagozkien eginkizun garrantzitsuak. Batez ere dimentsio informatiboarekin lotutako eginkizunak. Beraz, gobernuarekiko loturarik gabeko sistema baten alde gaude, informazio interesgarri guztia eta gure herriko antolakunde eta talde sozial orori lekua emango diona.

Hedabide publikoa den aldetik, bere langileei zor zaien independentzia eta autonomia bermatu beharreko funtsezko printzipioa izan behar da. Langile publiko izanik, beren lan profesionala eta herritarrei eman beharreko zerbitzua ezin dute bestelako interesez baldintzatu. Independentzia eta autonomia profesional hau bermatzeko lan-baldintza, azpiegitura eta bitarteko nahikoak behar dira, lana behar bezala egin ahal dezaten. Azpikontratazio hedatuak, ikus-entzunezko zerbitzu, saio eta produktuen esternalizazioak edota aldi baterako enplegu tasa izugarriak zerbitzu publikoaren independentzia higitzen dute, baita ahuldu ere kontratatutako enpresen edota botere politiko eta ekonomikoaren jarraibideekiko. Edukiak berariaz kontrolatu edo zentsuratzen ez badira ere, kontrol inplizitu bat badago, autozentsura iristeraino.

Bestalde, medioen eta lan profesionalaren independentzia bermatze aldera, ezinbestekoa da **gobernantza egitura eta organoak garatzea, gobernu, botere ekonomiko eta alderdi politikoaren kontrolerik kanpo**. Organo horiek osatzerakoan gure herriko errealitatea eta pluraltasun politiko eta soziala islatu beharra dago, modu demokratiko eta orekatuan; halaber, profesionalak eta ikus-entzunekeo komunikazioko adituak ere aintzat hartu behar dira.

Ezin da onartu, esaterako, Administrazio Kontseilua gaur egun ia guztiz ordezkari alderdikoiek osatzea; edota Legabiltzarrean Administrazio Kontseiluko kideak izendatzerakoan, azken bost legealdietan, ia alderdi politiko denek sindikatu nagusia kanpoan utzi izana, ELAk proposatutako hautagaia behin eta berriz ukatuz.

Hau dugularik sistema demokratikoaren zutoinetako bat, komunikabide publikoek erabateko gardentasuna bermatu behar dute, eta jendarteari kontuak eman behar dizkiote. Egun gizarteak ez du EITBren gaineko jarraipen eta krontola egingo duen mekanismorik, ELAk Arartekoari hel arazi dizkion salaketetan behin eta berriro agerian geratu den moduan. Horregatik, dauden organoak hobeto eta modu demokratikoagoan arautzeaz gainera, jendartearen parte hartze eta kontrol organo berriak sortu behar dira. Jendarteak informazio guztia izan behar du erabaki- eta zuzendaritza-organoen osaeraz, hautatzeko irizpideez, funtzionamenduaz, ildo estrategikoez, ildo editorialak garatzeko edo ordezkaritza eta partehartze alderdikoerako ezartzen diren banaketa irizpideez eta, oro har, hartzen diren erabaki guztiez. Baita erakunde publikoak egindako kontratu guztiei buruz ere (lan- zein merkataritza-kontratuak, edota zerbitzu kontratatuak). Tarteka, eta eskatzen zaien aldioro, arduradunek eta komunikabide publikoen zuzendaritzak beren erabakien eta jardueraren kontuak eman behar dizkiote jendarteari eta dogokien organoei.

## **Euskalduna**

Gure hizkuntz-komunitatea oso desitxuratuta dago. Estatu frantses eta espainiarrak garatu duten hizkuntz-politika zapaltzaile eta uniformatzaileak eragin du euskara hizkuntza gutxitua izatea, asimilazio eta ordezkapen prozesu betean dagoena. Frantsesez eta gaztelaniaz diharduten komunikabideak horretarako funtsezkoak izan dira, eta hala dira oraino.

Hedabide publikoaren eginkizuna oinarritzkoa da pertsonak askori inguru

fisikorik hurbilenean ukatzen zaien hizkuntz-komunitatean integratzerakoan; izan ere, euskaldun gehienak espainolez edo frantsesez mintzatzen diren jendarteetan bizi baitira. Gainera, gure herriari inposatutako mugen pisua astuna da eta estatu arteko mugaren bi aldeetako komunitate euskaldunen arteko distantzia gero eta handiagoa da. EITBk mugaren bi aldeetara bizi diren euskaldunen arteko elkartruke eta batasunerako tresna izan daiteke, izan behar du.

ELAren ustez EITBk, Euskal Herriko komunikabide publiko den aldetik, euskal kultura eta euskara sustatu eta hedatu behar ditu. Ez soilik gure kulturaren alderik tradizional eta folklorikoena -hau ere aintzat hartu beharrekoa den arren-; aitzitik, sortzen lagundu behar du ere gure imaginario politiko, sozial eta kulturala; berezko tratamendua eman behar die hainbat arlori: informazio eta aktualitatea, ezagutza, zientzia, ikerketa, artea, hezkuntza, musika, dantza, zinemagintza, dokumentalen programazio eta produkzioa, arazo eta borroka sozialak, kirolak, haurren ikus-entzunezkoen programazio eta produzioa... Hori guztia, ezinbestean, euskaraz.

Gure medio publikoek lehentasuna eman behar diote euskara ezagutu eta erabiltzeari, baita sustatu ere. Horrexetarako sortu zen, eta lan hori behar-beharrezkoa da. Aipatutako eremu guztietan goi mailako programazioa sortzeko gaitasuna badugu, bertoko produkzioa, interes soziala duena, lehenetsiz. Haatik, eduki bikainekin batera euskarazko kanalak ematen dituen beste batzuk nekez sartuko lirateke -izan ere, ez dira sartzen- gaztelaniazko kanalean.

Honek eraman gaitu EITBren egungo zatiketa zalantzan jartzera: gaztelania hutsezko kanal eta emisioek ia erabat bizkar eman diote euskarari, eta islatzen duten ikus-entzunezko errealitatean euskararik ez dago; areago, euskal hiztunak beste hizkuntzetan mintzatzerara derrigortzen dituzte, edota zenbait eduki gaztelaniaz entzun eta ikustera.

### **Azpiegiturak, langile propioak, lan-baldintza duinak**

Kalitatezko zerbitzu publiko independentea benetan bermatu ahal izateko ezinbestekoak dira azpiegitura eta bitarteko material egokiak, baita plantilla zabal eta anitza ere, zerbitzu publikoaren deskribatutako beharrezkoen aurre egiteko moduan izan ahal dadin; hori ziurtatzeko finantziario publiko nahikoa

behar da.

Alabaina, EITBren azken urteetako pertsonal politika ezin okerragoa izan da. Taldearen zuzendaritzak erabaki du zerbitzuak pribatizatu eta saioak kanporatzea. Erabakiok enplegu publikoa suntsitu eta lan prekarioa sorrarazi dute.

Eusko Irratiaren plantillatik 2011tik hona 30 pertsona kendu dira. Radio Vitoria, zeina hasieratik langile oso urriekin ari baitzen lanean, murrizketa plantillaren %25etik gorakoa izan da. Gogoratu behar da Eusko Irratian zuzendaritzak, Administrazio Kontseiluaren babesarekin, euskal herri-administrazioan izan den lehen EREa burutu zuela.

ETBn Zuzendaritzak erabaki zuen ordurarte berezko langileek egiten zituzten saioak ekoiztetxe pribatuen esku uztea; honek ere lanpostuak murriztea ekarri du.

Erakundean langileen murrizketaren ondorioz plantilla %20tik gora moztu da.

Berezko zerbitzuak pribatizatu eta azpikontraten esku uztea azken urteetako konstantea bihurtu da. Hainbat zerbitzu jausi dira zulo horretan: garbitasuna, segurtasuna, publizitatea, garapen informatikoa, administrazioa, jantzitegia, ileapaindegia, makillajea, erabiltzaileen arreta, prentsa, zurgintza, argiztapena... Honela 200dik gora langile esternalizatu dira, zeintzuk EITBko berezko zerbitzuak egiten ari diren azpikontrata bidez. Horrela prekaritate egoerak hedatzen ari dira, hala kontratuetan -abusuz erabiltzen dira aldi baterakoak eta izatez erabateko prestasuna eskatzen duten lanaldi partzialekoak-, nola soldatetan: Langile batzuk ez dute hilean 1.000 euro ere jasotzen.

Sarritan azpikontratetan dihardutenek lan guztia EITBrentzat egiten dute; honek esan nahi du langileen lagapen ilegalak gertatzen ari dela. Esaterako, ENG eta unitate mugikorren esternalizazioa medio azpikontrataturako 80tik gora pertsona ia erabat irrati-telebista publikorako ari dira lanean.

Zerbitzuak kanporatzeko -eta kontrol publikoari itzuri egiteko- beste bide bat da ohiko programazioan kolaboratzaileak hartzea, inolako lan kontraturik egin gabe. Praktika hau erakunde publiko batek ez luke horrelakorik egin beharko, kontrola, berdintasunaren bermea, publizitatea, meritua eta gaitasuna ez baitira aintzat hartzen; lan arloan, berriz, irregularra da, hainbeste, non Lan



Ikuskaritzak esku hartu izan behar baitu.

Honen adibideak:

- Radio Vitoriako ohiko programazioaren %20 kolaboratzaileen esku dago, irratiarekin inolako lan kontraturik ez dutenak.
- Kolaboratzaileek kazetari lanak egiten dituzte Eusko Irratiaren kirol programazioan.
- Hainbat irrati-saio kolaboratzaileek egiten dituzte osorik.
- Eusko Irratiko eta ETBko ohiko kolaboratzaileek aktualitateko saioetan parte hartzen dute alderdien kuotaren arabera, eta Lan Ikuskaritza hauen lanpostuak kontsolidatzen ari da, lehiaketa publikorik gabe, programazio estrukturalaren parte direla ebatzi duelako.

Benetan larria da, bermatu nahi bada zerbitzu publikoa eta hedabide publikoaren independentzia zein beronen proiektzio informatiboa, gaurkotasun informatiboko saioak ekoiztetxe pribatuen esku utzi izana. Ekoiztetxe horiek EITB taldeko langileak, azpiegiturak eta bitarteko materialak erabili ohi dituzte, era irregularrean. Honelako kasuak dira “En Jake”, “¡Qué me estas contando!”, “Está pasando” eta horrelako saioak... Hauek egiten berrogeita hamar lagun inguru ari dira.

Deigarria da antzeko saioak ETB1en berezko langileek egitea, eta aldiz, ETB2n ekoiztetxe pribatuei ematea, langile eta bitarteko ekonomiko gehiagorekin.

Honelako praxi klientelarrak hedabide publiko batean ezin dira onartu, eta horien xedea da langileak hautatzeko irizpide publikoak saihestea; horrek zerbitzu publikoa bera zalantzan jartzen du, baita beharrezkoa den independentzia irizpidea ere. Klientelismoaren adierazgarri nabarmena da ekoiztetxeak gobernuarekin batera aldatu izana.

Taldearen berezko langileen %30ak aldi baterako kontratua da, nahiz eta gehienez beharrezko estrukturalak osatzen ari diren. Beraz, kontratuen aldetik iruzur egoeran daude. Datu batzuk aipatzearren, 2015ean ETBn aldi baterako langileek 24.000tik gora lanegun egin zituzten (20.000 Bilbon eta iza 5.000 Miramonen), eta kontratuen %80 bost egunetik beherakoak izan ziren. Astebete ere irauten ez duten kontratuak sistemaz egiten dira irradian ere. Euskadi Gaztea eta EITBNETeko langile gehienek duela zortzi urtetik hona aldi

baterako kontratuak dituzte.

Iruzurrezko kontratu-politika honen ondorioz, ia ehun langileren kasuan mugagabe ez finko direla ebatzi da.

Izendapen libreko kontratuak, berriz, joera politiko edo interes alderdikoi jakinak dituzten pertsonak sartzeko baliatzen dira, ez soilik zuzendaritza eta antolakuntza lanetarako, baizik baita kazetari lana garatu eta baldintzatzeko, edota ildo editorialean eragin eta iritzia sortzeko. Kontuen Auzitegiak sarritan salatu du honelako kontratuek lege ezarritako hautapen prozesuak ez dituztela betetzen.

EITB taldearen zuzendaritzak garatu duen pertsonal politika zabar eta are arduragabe honen ondorioz dozenaka lanpostu galdu da; zerbitzu asko eta asko pribatizatu da, baita saio batzuk ere; lan-baldintzak prekarizatu dira; erakunde publikoa sortzeko legea sistemaz urratzen da; zerbitzu publiko eta kontratazio publiko ororen oinarrian dautzan printzipio nagusiak zapuztu; lan legediari uko egin zaio; ohiko programazioa murriztu da (gaueko saioak kendu eta ordu musikalak gehitu, besteak beste); programazioak kalitatea galdu du; profesionalek ezin dituzte informazioak kotnastatu eta sakondu; erredakzioan ez dago nahikoa jenderik aurrez landuta ez datorren informazio politiko, sozial eta kulturala bildu eta lantzeko (hots, informazio instituzionala edo gobernukoa ez dena); lan karga eta eginkizunak gehiegizkoak dira; kontraturik gabeko kolaboratzaileak baliatzen dira ohiko programazioa egiteko; ez dago teknikari nahikorik ohiko programazioan; saioak "lata"koak eta errepikakorrak dira; lurraldeka ezin da deskonexiorik egin; kirol ekitaldiak estudioetatik ematen dira; ez dira ordezkapenak egiten...

Langileen ordezkaritza legitimoak egoera hau salatu duenean edo proposamenak egin dituzte plantilla handitzeko, iruzurrezko kontratuak arautu eta enplegua kontsolidatzeko, kontratazio politika aldatu edota lan-baldintzak hobetzeko, ez du zuzendaritzaren aldetik inolako harrera onik izan, ezta negoziatzeko borondaterik ere. Aitzitik, zuzendaritzak mamia duten edukien inguruko negoziazioa bertan behera utzi du, aurrez sinatutako akordioak ez ditu bete eta plantilla, soldata zein lan-baldintzetan murrizketak inposatu ditu.

Negoiazio kolektiborik ez egitea, areago, enpresak aitzakia gisa hartu du

hitzarmenean jaso gabeko lan berriak, soslaiak edo eginkizunak ezartzeko.

Soilik mobilizazioak eta auzitara jo izanak behartu du zuzendaritza kendutako eskubide batzuk bere onera ekartzera.

Oinarrizko eskubide den aldetik, ELAk Administrazio Kontseiluari eta EITBko zuzendaritzari galdegiten die berrezar dezatela negoziazio kolektiborako eskubidea eta azken urteetan kendu dituzten lan baldintzak. Langileen legezko eta zilegizko ordezkartzearekin negoziazio kolektiboaren ordezkari ezin dira Administrazio Kontseiluaren aldekarreko erabakiak ezarri.

Enpleguari dagokionez kontratuak egiteko Erakundea sortzeko 5/1982 Legea aintzat hartu behar da, baita lan-hitzarmenak eta indarrean den lan-legedia ere. Plantillaren egoera irregularra larria denez, eta langile gabezia handia, hau eskatzen dugu:



- Suntsitu den enplegua berreskuratzea eta behar beste lanpostu sortzea agiri honetan proposatzen den euskal irratitelebista eredu aintzat hartzeko.
- Premiaz eta gehiengo sindikalarekin adostu ondoren LEP bat deitu enplegua kontsolidatu eta taldeko sozietate guztietako beharrezko estrukturalak osatzeko.
- Beharrezko erabakiak hartu eta arauak ezartzea ez dadin berriro enplegua suntsitu, zerbitzurik esternalizatu, aldi baterako kontratuak abusuz erabili, ezta iruzurrezko kontraturik egin ere; zehapen eta zigorrak ezarri hau urratzen dutenei.

Halaber, langile guztiei zor zaie berdintasunez garapen profesionalerako eta gaitasun teknikoa hobetzeko eskubidea, beren eginkizun profesionala eta promozioa behar bezala gara daitezen.

Noski, lan-baldintzek zeharo baldintzatzen dute lanbidea garatzeko modua, hedabide publiko batek behar duen independentzia eta eskaintzen den zerbitzu publikoaren kalitatea. Egun kanpora ateratzen den lan eta programazioaren zati handi bat bertako plantillak bete dezake, honela beraien lan esparrua eta garapen profesionala zabalduz.

## Behar besteko finantziazioa

Gaur EITB taldeak 137 milioi euroko aurrekontu publikoa du, hots, Eusko Jaurlaritzaren aurrekontuko %1,2. Inbertsio hau 2009koa baino 53 milioi txikiagoa da, eta aurrekontu publikoan 0,7 puntu jaitsi da. Soilik 2009ko aurrekontuko ahaleginari eutsiz gero erakunde publikoak 73 milioi euro gehiago izango luke eskura; eta 86 milioi gehiago, EITBn egiten den inbertsio publikoaren bilakaera ekonomiaren hazkundearen parekoa balitz.



Euskal irrati-telebista publikoaren aurrekontua oso urrun dago Europako beste hedabide publiko batzuk dutenetik oso urrun dago, espainiar eta frantses estatuetakoak barne.

Kalitatezko komunikazio zerbitzu publiko independentea, baliabidez hornitua eta behar adina langile dituena lortuko bada finantziazioa tamainakoa izan behar da, gehienbat publikoa. Horretarako ezinbestekoa da murrizte-politika baztertzea, aurrekontuetan zein baliabide eta langile kopuruari dagokienez, eta EITBk jasotzen duen finantziazio publikoa gehitu, aipatutako helburuak iristeko moduan izan dadin, behar besteko azpiegitura, bitarteko material eta berezko langileak barne.